

CERTAMEN LITERARIO

UDABERRIYA

E_N Hasparren se ha celebrado recientemente un certamen literario en el que distinguidos bascófilos se han disputado el premio del eminente D'Abbadie.

Ha merecido la preferencia del competentísimo tribunal una delicada poesía, *Udaberriya*, cuyo autor es nuestro amigo el incansable lingüista R. P. Román de Vera.

Reciba nuestros plácemes por sus repetidos triunfos.

He aquí la composición :

UDABERRIYA

Agitz goiz ernaturik joan naiz leyora,
Nere biyotz osuaz agur-egitera
UDABERRIYA'ri.

BI begiyok zuzendu nituen zerura,
Antxe zeuden isillik lurrera begira
Jauniren izarrak.

Goizeko izarra asi zan argiyez guchitzen,
Ta orok era ontaz diyote jarraitzen
Banaka-banaka.

Goiko zeru ederra urdiñez da jantzi,
Bere baitan artzeko eldu zan eguzki
Distiatzallia.

Sortaldian urratzen asi da eguna,
¡Zein pollita zitzaidan dakarren jantziya
Zuri-gorritzkoa.

Aldapa-gora digan urrezko gurdiyan
Eguzki beribilla su eta garretan
Guziya ipiñirik.

Eguzkiyak buruan jo ninduenian
Belaunikatu nintzen Jaunaren aintziñan
Apalki niyola.

¡Eskarrak, ene Jauna, biyot-biyotzetik,
Bulkatzen dizulako zauden bakaulkitik
Eguzki berua.

¡Eskarrak baita ere eutzi naizulako
Gaurko UDABERRI au neukan ikusteko
Naya beteraño!!!

¡UDABERRIYA'n gaude!!! — Ama, UDABERRIYA!
Jaiki zaitezte denak! Una UDABERRIYA!
Gora Jaungoikua!!!!!!!!!!!!

Egu aldian bizi zeraten txoriyak :
Atozte guretara, gure etxe-aldiak
Pozez betetzera!

Lur-azpiyan gorderik zaudeten aziyak :
UDABERRIYA'n gaude! lertu, ba, pikorra,
Sortu, ernai zaizte!!

Landare il-antzekuak : osto-rua da!
Eratu, ba, ostuak ; loriak atera!
Una UDABERRIYA!!!

.

Ama Euskal-Erriya, neguan zaudena!.....
Noiz sortuko ote zaigu zure UDABERRIYA!!!
..... Ai Ama gaixua!!!!

FR. ROMÁN MARÍA DE VERA, *Capuchino*.

